

“Amatasun sena eraiki egiten da”

Alicia E. Kaufmann

Organizazioen
Soziologiako katedraduna
Alcala de Henaresko
Unibertsitatean

Alicia E. Kaufmann katedraduna da Organizazioen Soziologian, eta aditua emakumea, generoa eta enpresa arloak lantzen dituzten gaietan. Ehunka liburu eta ikerketa argitaratu ditu, eta horien artean *Changing Female Identities* –Identitate femeninoak aldatzen ari– (MacMillan, 2011). Bi seme-alaba ditu, eta ohartarazten du amatasunak beren bizitza bazterrerara utzarazten diela emakumeei. Aholku bat ere ematen die seme-alabak izatea hautatzen dutenei: ez saiatu perfektuak izaten.

Seme-alabak bai edo seme-alabak ez? Zuk zer diozu? Galdera subjektiboa da. Hauxe esango nuke: seme-alabak bai, baina baldintza batzuekin. Hau da, norberak egindako hautua izan dadila. Emakumeak jakin behar du ama izateak berekin dakarrela norbere bizitza bazterrerara uztea eta bilakaera profesionala atzeratzea.

European, bost emakumetatik bat (%20) ez da ama, eta horien artean, %3k soilik dauzkate ugalkortasun arazoak. Amatasunari uko egitea erabaki ekonomikoa da, edo gehiago da haurrak eduki nahi eza? Ez dago arrazoi bakarra. Zenbaitetan, lanbaldintza kaskarren edo prekarietatearen ondorio izaten da. Amatasuna atzeratu egiten da, hainbeste atzeratu ere, ezen haurdun geratu nahi izaten denean, fisikoki ezinezkoa izaten baita. Beste emakume batzuek, besterik gabe, ez dute sentitzen seme-alabak izateko beharrik. Eta, beste batzuetan, emakumearen eta haren gurasoen arteko harreman ez oso egokiaren eraginez gertatzen da.

Badago amatasun sena edo gizar-teak eraikitako zerbait da? Nire iriziz, eraiki egiten da.

Seme-alabarik ez dutela eduki nahi erabakitzen dute zenbait pertsonak

berekoiak direla iruditzen al zaizu? Ez da bidezkoa seme-alabak izateari uko egiten dion emakumea epaitzea, ezta berekoizat jotzea ere. Mundu post-moderno batean gaude, non askatasun handia dagoen; eta emakumeek aukera egiten dute. Gure gizarteak indibidualtasuna, lehia eta gisako balioak sustatzen ditu. Ez du erraztasunik ematen emakumeak ama izan daitezen eta, aldi berean, pertsona gisa hazi. Jokalekua hori izanik, ez daiteke esan guraso izateari uko egiten diona berekoa dela. Konplikatu da haur bat izatea. Eta enpresek ere asko zailtzen dute.

“Amatasuna esklabotza modu bat da” esaten du Elisabeth Badinter filosofo eta feministak. Bat al zatoz? Ez. Haurrik ez izatea erabakitzen baduzu, agian izango da esklabotza gisa ikusten duzulako, haur batek bizitza osorako konpromisoa dakarrelako. Baina, haurrak izatea erabakitzen baduzu, izango da prozesu horrek gozabide-tik ere baduelako. Hala ere, egia da amatasunak norbere burua alboratzea dakarrela. Bigarren mailan geratzen zara, bikotekidea bezala. Harreman asko apurtu egiten dira seme-alabak heldzen direnean. Afektibitatearen tarta beste modu batez banatzen da.

Badinterrek hori esaten duenean, nabarmentzen du amatasunagatik emakume asko behartuta sentitzen direla beren ibilbide profesionala uztera. Presio sozial handia dago emakumearengan. Beste herrialde batzuek gehiago babesten dute amatasuna, urtebeteko amatasun-baimena ematen dute, eta jendeak seme-alaba asko izaten ditu.

Zuk esaten duzunez, “identitate femeninoa aldatzen ari da”. Aldaketa horrek ba al du zerikusirik amatasunari uko egiteko joera gero eta hedatuagoarekin? Identitate feme-

nino eta maskulino berri bat dago, indibidualistagoa, gehiago pentsatzen duena bere buruan eta ez familia bat osatzen. Emakumeok, gainera, erruz eskatzen diogu geure buruari; oso perfektionistak gara. Eta garrantzitsua da hori azpimarratzea. Profesional perfektuak izan behar dugu, alaba perfektuak, ama perfektuak... Baina gutxiago eskatzen badiozu, eta “behar bezain ama ona” izatearekin etsitzen baduzu, gai izango zara aldi berean gauza bat baino gehiago egiteko. Zentzugabea da eskatzea ama perfektuak izan behar dugula, zentzugabea %100 eskatzea geure buruari. Batzuetan aski da %80ekin.

Guraso ez izatea erabakitzen dutenek azkarrago zahartzeko beldurrez hartzen ote dute erabaki hori? Guztiok zahartzen gara, seme-alabekin edo gabe. Baina seme-alabak dituzunean, gehiago ohartzen zara zein azkar doan denbora. Seme-alabek, gainera, heldzera behartzen zaituzte, zeren pertsona horiek zure mende daude erabat, eta zure gain hartu behar duzu haien ardura.

Beste gogoetarik bai, bukatzeko? Haurrak izateko edo ez izateko erabakia heldutasunetik hartu behar da: bizitzan zer bide ibili nahi duzun aukeratzea da, bere ondorioekin. Aukera egiten denean, beti irabazten da zerbaite eta beti galtzen da. Seme-alabarik ez izatea erabakitzen duenak denbora gehiago izango du, askatasun gehiago. Baina, agian, baita bakartasun gehiago ere. Guraso izatea erabakitzen duenak gauza gehiagori esan beharko dio ezetz eta ardura gehiago izango ditu. Baina, akaso, bidearen amaieran, bizitza beteagoa ere bai. Aukera kontua da, balio kontua.

